

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Arreko ur-depositu berriak Ezkabarteri eta Atarrabiari zerbitzu emango die

*Miravallesen kokatuta, 10.000 m<sup>3</sup>-ko edukiera du*

Osteguna, 2017.eko azaroak 2

Arreko ur-depositu berriak herri horri eta Ezkabarten kokatuta dauden beste hiruri (Orikaina, Soraura eta Azoz) eta Atarrabiari emango die zerbitzua. Miravallesen kokatuta, 10.000 m<sup>3</sup>-ko edukiera du.

Aurreikusita dago etorkizunean Olaitz, Olabe, Enderitz (Olaibar) eta Eusari (Ezkabarte) ere hornitzea eta Egillorreko (Olo) ur-hornidurako lerro orokorrarekin lotzea Makirriaingo (Ezkabarte) deposituaren bidez. Hornidura guztia beteta dagoenean, deposituak 20.000 pertsona ingururi emango die zerbitzua.

Azpiegitura hori gaur goizean inauguratu da, eta ekitaldian honako hauek parte hartu dute: Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioiko zuzendari nagusi Xabi Lasak; Iruñerriko Mankomunitateko presidente Aritz Ayesak eta Ezkabartereko alkate Pedro Lezaunek.

### Depositu berriaren ezaugarriak

Azpiegitura berriak hormigoi armatuko egitura du, oinplano laukizuzena du eta bi ontzi simetriko ditu: guztira, 10.000 m<sup>3</sup>ko edukiera osoa (aurrekoak baino 2.000 gehiago). Ur-garaiera 7 m da eta betetzeko muga 497 m. Instalazioak mailak eta emaria neurtzeko teleaginte eta telekontrol sistema du. Horrez gain, ontziei atxikita, hormigoi armatuko giltza-ganbera ere badu.

Obra 12 hiletan egin da eta aurrekontu osoa 2.765.409 eurokoa izan da. Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko Departamentuaren tokiko inbertsio planaren barruan dago, eta 1.212.923 euroko diru-laguntza eman du. Lanak Obrascon Huarte Lain SA enpresak egin ditu, Iruñerriko Zerbitzuen obra-zuzendaritzarekin.




Deposituen barnealdea.

Depositu berri honek leku berean 2015. urtera arte egon zena ordezkatu du. Aurretik zegoenak egiturazko huts bat izan zuen, eta hornidura eten ez bazen ere, berehala gaitu baitzen Miravallesko depositutik etorritako ordezko sare bat, handik metro gutxitara, Arren ere bai. Huts horren arrazoiak aztertuta, geratzen zen egitura eraitsi zuten eta hondakinak kendu zituzten.

Geroago, egindako plangintza-azterketetan oinarrituz, eskualdeko hornidura-sarerako beste depositu bat eraikitzea komenigarria zela egiaztatu zuten, leku berean, goiburu gisa. Leku horretatik, hornitzeko ahalmen handiagoarekin, hornidura iparralderantz (Olaibar ibarra) eta mendebalderantz, Ezkabarteko gainerako ibarrerantz handitzeko aukera emango zuten.

Depositu berriaren ura, aurrekoarekin gertatzen zen moduan, Eugiko urmaeletik dator, Urtasungo edateko ura tratatzeko estazioan araztu ondoren.



Inauguraziora bertaratutakoak.